

2005EKO EKAINAREN 30EKO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko ekainaren hogeita bostean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Gorka Lamy Insausti, Juan Manuel Serna Portugal eta Milagros Alvarez Novoa.

Igor Sarriegi Zumarraga eta Angel Olaso Villalba zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Xabier Arrasate Aierbe eta Inazio Estensoro Eskisabel zinegotziak bertaratzen direneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2005eko apirilaren 21ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- FUTBOL ZELAIKO BIRMOLDAKETAREN 7. ZERTIFIKAZIOA.-

Arizti Haundi Futbol Zelaiko Birmoldaketa proiektuaren obra zuzendaritzak lan hauen zazpigarren zazpigarren zertifikazioa luzatu du. Futbol Zelaiaren Birmoldaketa lannen zazpigarren zertifikazioa 15.544,44 eurotakoa da.

Obra zertifikazio honek udal teknikarien oniritzia jaso du.

Serna zinegotziak (PSE-EE) obra honetan desbideraketarik ba al dagoen galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio esanez baietz, badaudela, eta gehitzen du proiektuarekiko desbideraketa nagusienak ur-hornidura sarean eta elektrizitate hornidurako sarean egin beharreko instalazio berrikuntzetan sortu direla.

Honen ondoren eta zertifikazio hau aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, berau onartzea erabakitzen du.

IV.- SAN PRUDENTZIO ERMITA INGURUAN LURREN ESKURAGARRITASUNERAKO HIRIGINTZA HITZARMENA.-

Alkateak esaten du 18 Hirigintz Areako urbanizazio lanak garatzeko lurak eskuratzeraz bideratutako zenbait kudeaketa lan egiten ari direla. Esaten du baita ere alde batetik Udala 18 Hirigintz Areako Birpartzelazio Proiektua izapidatzen ari dela eta bestalde eta San Prudentzio Ermita ondotik pasatzen den bidearen desbideraketa egiteko beharrezkoa dela 3 Hirigintz Arean kokatu eta Teodoro Jauregi Agirreren Jaunaren jabetzakoa den lur zati bat okupatzea. Azken hau bideratzeko Teodoro Jauregi Agirre Jaunarekin hitzarmen bat izenpetu da eta orain Osoko Bilkurara aurkezten da honek bere baiespena eman dezaion.

Izenpetu den hitzarmenaren bidez Jauregi Jaunak desbideraketa egiteko beharrezko diren 40,14 metro karraturen okupazioa egiten uzten dio Udalari eta Udalak bere gain hartzen ditu desbideraketa lan hauen kostuak.

Une honetan Xabier Arrasate eta Inazio Estensoro zinegotziak bertaratzen dira.

Hau honela, Osoko Bilkurak, hitzarmen hau aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Teodoro Jauregi Agirre Jaunarekin izenpetu eta bere espedientearen dagoen hitzarmen honi baiespena ematea erabakitzen du.

V.- SAN PRUDENTZIO ERMITA INGURUKO URBANIZAZIO LANAK.-

LKS Ingenieria enpresako Andrea Iglesias Laguardia Bide, Ubide eta Portuetako Ingenieroak "1.U.E."ko "18.H.G."ko Urbanizazio Proiektua Lazkaon (San Prudentzio ermita inguruko urbanizazio lanak) idatzi du. Proiektu honen aurrekontuaren zenbatekoa, Osa-sun eta Seguritate azterketa eta Kalitate Kontrola barne ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA BEDERATZI MILA ZAZPIEHUN ETA HAMAZAZPI EURO ETA LAU ZENTIMO (749.717,04) da, B.E.Z. barne.

Bestalde proiektu honen lanak burutzeko kontratazio espedientearen prestatu da. Lanak prozedura ireki eta lehiaketa bidez esleitzea planteatzen da. Bere espedientearen aurkitzen den berariazko administrazio eta ekonomi baldintzen pleguan zehazten den bezala, erizpideak prezioa (%90) eta epea (%10) izango dira. Lanen burutzea 2005 eta 2006 urtetako aurrekontuetatik finantzatuko da.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordio hauek hartzen ditu:

- 1.- Lazkaon "18.H.G."ko "1.U.E."ko Urbanizazio Proiektua (San Prudentzio ermita inguruko urbanizazio lanak), Andrea Iglesias Laguardia Bide, Ubide eta Portuetako Ingenieroak idatzitakoa, onartzea.
- 2.- Lanak burutzeko kontratazio espedientearen onartzea."

VI.- GERONTOLOGIKOKO LURRAK ESKURATZEKO IZENPETUTAKO HITZARMENAREN AKORDIO OSAGARRIA.-

Lazkaoko Arau Subsidiarioetako 6 Hirigintz Areak gerontologiko etxe bat eraikitze-ko lurak derrigorrezko jabetza kentze bidez eskuratzeko izapidatutako espedientean, hirigintz hitzarmen bat izenpetu zen lur jabeekin. Hirigintz hitzarmen hau Udal Osoko Bilkurak 2003ko maiatzaren 12an onartutakoa da.

Hirigintz hitzarmena izenpetzerakoan Kanpandegi baserriko Iraola Mujika sendiak ondoren azaltzen den akordio osagarria izenpetzea eskatu zuen eta Alkateak Udalaren izenean akordio hori izenpetu zuen Iraolatarrekin.

Izenpetutakoak honela dio:

"Gaur egun Lazkaoko udalerriko planeamenduko Arau Subsidiarioetako berrikusketaren Anbantzua onartuta dago eta proposamen dokumentua idazten ari da. Abantze horretan, Zubierrekan, industri gune baten garapena aurrakusten da eta garapen hori Udalak sustatzaile dela eramango balitz aurrera eta industri garapen horren ondorioz Kanpandegi baserria bota egin beharko balitz eta beraz Iraola Mujika sendiari beste etxe bat aurkitu beharko balitzaioke, Lazkaoko Udalak Iraola Mujika sendiari, akordio honen aurrekoa eta oinarria den hitzarmenean aipatutako Udalaren esku geratzen direneko hiru lursailetatik beraiek aukeratutakoa eskuratzeko konpromezua hartzen du. Halaber, eta garapenaren sustapena Udalak egingo ez lukeen kasurako, honek bere borondatea agertzen du Iraola Mujika sendia beraiek aukeratutako lursailean bizitzen jar daitezen errazteko."

Hau honela, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Alkatea eta Iraola Mujika sendiak izenpetutako akordio hau berretsi egiten du.

VII.- ARERIA ZUTABEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

Mozioaren izenburua HERRIAREN BORONDATEA GAUZA GUZTIEN GAINETIK da eta honela dio:

"Bakea, demokrazia, konponbidea, ... guztion ahotan dabilen egun hauetan, herri honen azken urteetan izan diren egunik beltzenetariko bate bigarren urteurrena betetzear gaude. 2003ko maiatzaren 25ean, espainiar estatuak herri honen eskubide zibil eta politikoen aurka, beste urrats bat gehiago eman zuen, milaka herritarren borondatea alboratuaz. Bi urte hauetan, espainiar eta frantziar estatuak, bere etorkizuna libreki erabakitzeko ahalmena besterik eskatzen ez duen herri zahar hau, modu desberdinetara ukatzen jarraitu dute.

Baina urte hauek, hainbat gauza oso agerian utzi dituzte: Ezkertiar eta abertzaleok urteetan aldarrikatu dugun bezala, herri honen eskubideen aitopenetik eta euskal herritarren borondatearen errespetutik soilik konponduko da mendeetan zehar luzatzen ari den gatazka.

Bide horretan, eta askotan ikusi den bezala, herritik sortu eta herrian errotutako eskubideen aldarrikapen eta proiektu politikoak, ezin dira dekretu eta lege atzeritarren bidez, egun batetik bestera desagertarazi. Horretan aritzeak eta egoera horretatik etekina ateratzen saiatzeak, herritarren artean ezinegon eta haserrea areagotu besterik ez du egiten.

Argi geratu da gainera, Euskal Herria eta estatu frantziar eta espainiarraren arteko gatazkan, azken hauek eskubideak ukatzeko tresna berriak erabili dituzten guztietan, herri jakituriak, egoerari aurre hartu eta bitarteko berriak topatu izan dituela, zilegitasun osoz aurrera egiten jarraitzeko. Horren lekuko da, Udal zerrendak legez kanpo utzi zituztela bi urte bete diren honetan, ehunka udalerritan Herri Plataformak lan politikoa egin eta alternatibak aurkezten inoiz baino tinkoago ari izana.

Bitartean ia 100 hautetsik, beraiei ez zegokien karguak hartu ez, edo utzi izana, ba da pausu bat. Garrantzitsua oso. Lehen pausua, herri zilegitasunik ez duenak, ez dagokion kargu instituzionalari uko egitea delako. Hemendik, oraindik lapurtutako karguetan jarraitzen duten 300 hautetsiri DIMITITZEKO dei ozen bat luzatu nahi diegu. Madrilego faxistek diseinaturiko Apartheid ildoaren zutabe direlako. Kargua lapurtzen duten hautetsirik gabe, Apartheid-ak etorkizunik ez duelako.

Baina bigarren pausu bat emanaz, herri honetan ideiak bahitzeko estatuak erabirikoa tresna, bere aurka bilakatzeko aukera ba da. LOREG-aren 182.2 artikulua bidez, herri zilegitasunez dagokionari kargua itzultzea posible da. Borondate politikoa behar da bakarrik. Gaur arte gauzatzen ez den borondatea hain zuzen ere.

Euskal Herriak, bi estatuekin duen gatazkaren konponbidearen aldeko adierazpenak nagusi diren egun hauetan, berau, herriari hitza eman eta errespetatzetik etorriko dela ere, guztion ahotan da. Baina asmo hauek guztiak gauzatzeko bidean, ausardia politikoa da ezinbesteko osagaia. Eta honek, Udal eta Batzar Nagusietako egoera antidemokratikoari aurre egin beharrenekin zerikusi zuzena du.

Irakurketa honek ba du salaketa izaera, milaka herritar eta hautetsiren hitzak bahituta jarraitzen duelako. Baina ba du eskaintza izaera ere. Egoera honi konponbidea emateko gure prestutasuna aldarrikatu nahi dugulako.

Hau guztia kontutan izanik eta egoera honen aurrean, ARERIA ZUTABEA Herri Plataformak, honako puntu hauek aurkezten ditu Osoko Udal Batzarrean, bertan eztabaibatu eta onartuak izan daitezen:

- 1.- Espainiar Alderdien Legearen aplikazioak sorturiko eskubide zibil eta politikoen urraketa egoera hau ahalik eta azkarren gainditzearen beharra bere egiten du Udal honek.
- 2.- Udal honek, 2003ko Udal eta Foru hauteskundeetan, milaka herritarrek bozka bidez emaniko hitza errespetatzearen premia aldarrikatzen du. Norabide horretan urrats sendo eta ausartak ematea, herri honen bi Estatuen arteko gatazkaren konponbidean ezinbesteko pausua dela uste du.
- 3.- Udal honek, herri borondatearen arabera kargurik ez dagokien hautetsiei, LOREG-aren 182.2 artikulua bidez martxan jartzeko deia egiten die, honen bidez, gure herritarrek duela bi urte adierazi zutenaren arabera Udala osatu dadin.
- 4.- Udal hau, ahalik eta azkarren guztiok desio dugun egoera horretara iristeko beharrezkoak diren pausu guztiak emateko prest agertzen da.

5.- Erabaki honen berri herritarrei zabaltzeko konpromezua hartzen du Udal honek.”

Alkateak (EAJ/EA) esaten du aurreko osoko bilkuretan azaldutako jarrera mantentzen direla eta beraz mozioari ezezkoa emango diotela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) mozioari ezezkoa emango diotela.

Mozioa bozketan jarri eta Osoko Bilkurak bertaratutako guztien aurkako botuekin mozioari ezetza ematea erabakitzen du.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esaten du hurrengo osoko bilkura hilaren azken ostegunetik aurreratu egingo dela. Bestalde, etxebizitza tasatuei buruz esaten du etxebizitza batetara heltzeko zerrenda ekainaren 28an itxi zela eta izen emandakoen arteko zozketa uztailaren 12an, arratsaldeko 6etan egingo dela, Kiroldegian.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak zortzi minutu gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.